

## **INDARKERIA MATXISTA SALATZEKO PRENTSA OHARRA. GASTEIZ URTARRILAK 27.**

Soraluzeko Udalak gogor gaitzesten du indarkeria matxistaren erruz Gasteizen gertatu den 17 hilabeteko Alicia umearen hilketa.

Soraluzeko Udalak emakumeek pairatzen dituzten mota guztietako indarkeria matxistak arbuiatzen ditu eta dei egiten die herri erakundeak jabe daitezten gizonetzko ere gizarte bezala daukagun arazoa dela hau eta ez dela gaitzespen adierazpenak eginez bakarrik konpontzen.

Emakumeak ez dira hiltzen, hil egiten dituzte eta bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakume bakoitza gure erakundearen eta gizartearen porrota da, emakumeak defendatzen jakin izan ez dugulako. Baina Udal honen gaitzespena eragingarria izan dadin, jakin behar dugu berdintasun, prebentzio, heziketa eta, batez ere, emakumeenganako errespetu gehiagorekin baino ez dela lortuko egunero eta uneoro emakumeek eta neskatilek pairatzen dituzten indarkeria eta jarrerekin amaitzea.

Emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria ezberdinak ( psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala) beren duintasunaren eta integritate fisiko zein moralaren aurkako erasoak dira eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa onartezina.

Soraluzeko Udalak bere elkartasuna adierazten die Aliciaren senitartekoei.

ASKI DA!!!

INDARKERIA MATXISTARI EZ!!!